

BALOREZKO PROPOSAMENA:

- **Ze behar edo arazo konpontzen duzue?**

Haurren zainketa, pertsonen arteko harremanak eta agureen zainketa da gure enpresak betetzen duen zerbitzua.

Lehiakideengandik bereiz gaitetzke honako bitartez:

- Berritasuna
- Pertsonalizazioa
- Lana erraztea
- Prezioa
- Eskuragarritasuna
- Erabilerraztasuna

- **Zer bereizten zaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa zuri ordaintzeko prest?**

Gaur egun, gurasoen % 70ek ez du astirik seme-alabekin egoteko, gero eta lan gehiago egin behar dutelako. Espainiako % 64,3ko gurasoek haurrak haurtzaindegira eramateko arrazoi nagusia "etxetik kanpo lan egiten dutelako" dela esaten da. Izan ere, %5ek bakarrik uko egin diezaioke seme-alabak haurtzaindegira eramateari, "Beraiek zaindu ditzaketelako etxean".

Zure semea etxean bertan, haurtzaindegi batean, eskolaurreko zentro batean edo beste pertsona baten etxean zaintzea aukeratzen baduzu ere, gomendio espezifiko batzuk jarraitu beharko zenituzke zure semeak arreta profesionala eta kalitatezkoa jasotzen duela ziurtatzeko.

Gaur egun, zailtasun handia dago haurtzainak aurkitzeko edozein arlotan;

Haurren kasuan, gurasoek lanera joan behar direnez, ez daukate norekin geratu. Aitite-amonen kasuan, oso bakarti sentitzen dira eta ez daukate zaintzaile bat izateko erraztasuna ezta norekin konpartitu haien denbora libre eta zaletasunak ere. Beste kasu batzuetan, gazteek edo helduagoek ez daukate haien gustuko ekintzetara eraman edo lagundu dezaketen lagunik, beraz hori eskuratzeko erraztasuna ere eskainiko dugu.

Arrazoi guzti hauek direla eta, gure enpresak **homelinenlagun.com** webgunearen bidez, egoera horietan pertsonak bakarrik ez uzteko aukera eskainiko dugu, beste zerbitzu batzuen artean. Webgune horretan, aukera desberdinak egongo dira:

- Umeak egoera normalean, hau da, egunez zaintzailerik gabe geratzen badira, egoera berdinean dauden beste haurrekin elkartzeko eta ekintzak egiteko aukera eskainiko dugu. Ekintzak egiteaz aparte, zainketa normala, ariketa berezirik egin gabe ere jasotzeko aukera izango dute haur horiek.
- Aiton-amonak bakarrik sentitzen direnean, besteek bezala, webgunearen bidez, zaintzaile bat eskuratzeko erraztasuna eskainiko diegu haiekin egoteko, haiek zaintzeko eta nahi dituzten gauzak egitera laguntzeko.

- Aparteko egoeretan, hau da, gauetan umeak zaintzailerik ez badute, lokalera eraman ahal izango dituzte beraien seme-alabak han gaua pasa dezaten eta gero hurrengo egunean esnatzen direnean haien bila joan ahal izango dira, izan ere, lokalean oheak izango ditugu ere, kasu hauetarako eta janaria haurrak gose badira jan dezaten. Gainera, izango dugun lokalean hainbat jostailu eta joko jarriko ditugu haien eskura haiek entretenitzeko eta elkarrekin jolasteko. Horrez gain, telebista eta sofa bat jarriko dugu haiek hor egon daitezen.
- Pertsona batek ekintza bat bakarrik egin nahi ez izatekotan, bere zaletasunak konpartitzen dituen pertsona bat aurkitzeko erraztasuna emango diogu. Hau da, sortuko dugun webgunean pertsonak haien zaletasunak eta egin nahi dituzten ekintzak jarri ahalko dituzte eta horrela gauza berdinak egin nahi dituzten pertsonekin kontaktuak jarri ahala izango dira ekintza horiek egiteko.

Hala ere, lokalean haur kopuru jakin bat sartu ahal da bakarrik eta hori jendeak webgunean ikusi ahal izango du, lekua badago edo ez.